

EAJ-EA KOALIZIOA

«Negoziazioak aurrera doaz eta baikorra da hori. Akordioa bilatzeko lanean ari gara»

PP-KO GOBERNUA

«Beste gaietaz ez hitz egiteko erabiltzen gaituzte; ez ginateke jokoan erori beharko»

ezin izan dute neurrien beharra frogatu ez arrazoitu. Aitzitik, ikerketa guztiek kontrakoa erakusten dute: bergizarteratzen direnek normalean ez dituztela delituak berriro egiten.

■ Beste arrazoi bat dago, orduan.

Elementu erabat demagogikoa da PPK darabilena, gaizki egiten duen dena estaltzeko politika. Gobernuaren kudeaketa txarra, *Prestige*-ren kasuko hondamendi ekologikoa, langabezia... es-tali egiten dituzte, oso maitea duten gai batekin, eta autoritarismoaren bidetik. Terrorismoaren kontrako borroka deitua-rekin datoz beti. Inoiz ez dute EAEko edo Nafarroako datu ekonomikoez hitz egiten. Beraien akatsak estaltzeko erabiltzen gaituzte, beste gai batzuez ez hitz egiteko. Ez guke euren jokoan erori beharko. Munduan, oro har, autoritarismoa ahalbidetzen duen giroa dago. Segurtasun handiagoa behar dela faltsua da: ez dago segurtasun handiagoa, askatasun txikiagoa baizik. Eta oso garrantzitsua da gu ez isiltzea, presio politikoa eta mediatikoa handiak izan arren.

HAUTESKUNDEAK. Justizia soziala eta herritarren partaidetza izango dira EB-IUren ardatz

Iuk gobernu «pluralak» sustatuko ditu udaletan, EAJ, EA eta PSErekin batera

Zigorak gogortzeko egitasmoarekin, «mendekuz» jokatzeari egotzi dio Madrazok Aznarri

Humberto Unzueta | BILBO

Ezker Batuak «gobernu pluralak» bultzatuko ditu udaletan, Javier Madrazo alderdiko koordinatzaileak atzo jakinarazi zuenez. Honenbestez, maiatzaren 25eko hauteskundearen ostean PSE, EAJ, EA eta EB-IU alderdiek EAEko udalerrietan osaturiko gobernuen alde egin du. Madrazok atzo aurkeztu zituen udal eta foru hauteskundeetara koalizioak eramango dituen programaren ildo nagusiak.

Udaletan gobernu «pluralen» alde eginez, azken autonomi hauteskundeetako filosofia «berresten» duela adierazi zuen Madrazok Bilbon eginiko agerraldian. EB-IUko burukideak «gehiengoaren borondatea ordezkatzeko» duelako babestu zuen bere egitasmoa. Halaber, proposamena «adostasunaren eta sentsibiltatearen arteko ulermenaren aldeko apustua» dela gaineratu zuen.

Honen haritik, Madrazok PSE hartu zuen ahotan, azken hauteskunde autonomikoetan bizkar eman ziolako hirukoarekin batera gobernukide izateari, «PPrekin erosoago sentitzen zelako». Gogoeta egin dezaten eskatu zien sozialistei, gogoraziz PP-PSOE ituna «lubakia-aren hitzarmena» dela, «herria eraiki bainoago, suntsitzen duena».

Madrazoren esanetan, PPK «hauteskunde emaitzei» begira erabiltzen du euskal gatazka,



ALFREDO ALDAI / EFE

EB-IUko koordinatzaile nagusi Javier Madrazo, atzo alderdiaren Bilboko egoitzan egin zuen agerraldian.

baina baita ongizate estatua «hustu» eta hainbat eskubide murrizteko ere. Honen ildotik, Espainiako Gobernuak preso- zigorak gogortzeko egitasmoa «mendeku» gisa erabili duela salatu zuen. Ahal izango balu, Aznarrek «heriotza zigorra» ezarriko lukeela gaineratu zuen, «bere lagun min Bush baino gutxiago ez izateko».

Alderdi sozialistaren PPreki-ko «segidismoa» salatu ondoren, PSEren «autonomia eta berezko profila» non dauden galdetu zuen. Patxi Lopez idazkari nagusia «ezkutatuta» eta «isil-

JAVIER MADRAZO

EB-IUko koordinatzaile nagusia

«Begiari begi... horixe da zigorraren gogortzearekin Aznarrek nahi duena. Ahalko balu, heriotza zigorra ezarriko luke»

isilik» dagoela azpimarratu zuen jarraian, PSEren jarrera «patetikoa» nabarmentzeko.

Ezker Batua jadanik hasia da hauteskunde programa osatzen

eta, hau gauzatzean, zerrendak egiteari ekingo dio. Madrazok alderdiak hurrengo asteetan eztabaidatuko duen programaren ildo nagusiak jakinarazi zituen.

Herritarren partaidetza eta justizia soziala izango dira programaren zutabe nagusiak, eta, hori garatzeko, lau aldarrikapen eta ildo nagusi izango ditu: udal aurrekontuetan herritarren partaidetza bultzatu, herritar orok etxebizitza duin bat izateko eskubidea bermatu, ingurumenarekin bat bizi diren herrien aldeko apustua, eta gizarte bazterketaren aurkako borroka.

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

ERREKTOREGOA
RECTORADO

25 urtetik gorakoak Unibertsitatean sartzeko azterketak

Unibertsitate honek **EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBA DEIALDIA** argitaratu ematea erabaki du, guztiek haren berri izan dezaten, eta 94/10/10eko EHAAn argitaratutako arautegia betetzeko.

Proba horiek egiteko **matrikula 2003ko urtarrilaren 13 eta 14an** egingo da.

TOKIAK:

-Arabako Campuseko Errektoreordetza.

Izardui komandantea, 2.
01006 Gasteiz.
Tlf.: 945014301.

-Ikasleen Atala.

Sarbiderako bulegoa.
I. ikasgelategia, beheko solairua.
Sarriena auzoa z/g.
48940 Leioa (Bizkaia)
Tlf.: 946015555.

Azterketa: 2003ko martxoaren 8an, 9,30etan:

ARABAN: Filologia, Geografia eta H. Fak. Unibertsitateko ibilbidea, 5. 01006 Gasteiz.
GIPUZKOAN: Ignacio M^o Barriola eraikina (Ikasgelategia). Elhuyar plaza, 1. 20018 Donostia.
BIZKAIAN: Industria eta Telekomunikazio Ingeniarien Goi Eskola Teknikoa. Urkijo zumarkalea, z/g. 48013 Bilbao.

Leioa, 2003ko urtarrilaren 11
Akademi Antolakuntzako errektoreordea
Enrique Amezuza San Martín

kutxaren

ITZULPEN-ZERBITZUEN KONTRATAZIO-RAKO LEHIAKETA-DEIALDIA

Gipuzkoa Donostia Kutxak (Garibai, 15 - 20004-Donostia) bere eguneroko finantza-jardueran eta gizarte eta kulturazko harremanetan sortzen edo hartzen dituen testuen euskara/erdarazko itzulpenak egingo lituzke(t)en enpresa nahiz agentzia nortasun juridikodun bat (batzuk) kontratatu nahi luke (lituzke).

Interesatuak **kutxa** enpresaren web-orrialdean (www.kutxaempresas.net) eta "hornitzaileak" atalean kontsultatu ditzakete lehiaketa honen oinarri-arauen xehetasunak.

kutxa